

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak arrakasta izan dezan zenbait baliabide beharko ditugu. Hasiera emateko, guztietan beharrezkoena dirua da. Gu orain arte lan mundutik kanpo ibili garenez, gure aurrezkietatik ipiniko dugun diru kopuruaz gain diru laguntza bat eskatuko dugu.

Diru laguntzari dagokionez BBVA banketxearekin kontaktuan jarriko gara. Gure egoeraren berri eman ondoren mailegu bat eskatuko diegu. Maileguari dagokionez, lehenengo urteari begira behar izango ditugun gastuak osatzeko adina diru eskatuko diegu, 160.000€ hain zuzen ere.

Enpresa aurrera ateratzeko ezinbestekoa izango da zenbait baliabide fisiko eta ez fisiko eskuratzea. Horien artean gure egunerokoan erabiliko ditugun zenbait daude. Lehenik eta behin Baliabide fisikoez hizketan hasiko gara, ondoren berriz ez fisikoez.

Baliabidea ukigarriak direla eta (fisikoak), lokal bat ezinbestekoa egingo zaigu. Ugassarekin harremanetan jarriko garenez, lokala eskuratzearena lotuta izatea espero dugu. Gune hori hainbat gauzetarako erabiliko dugunez, gure beharren arabera egokituko dugu. Horretarako, ordenagailu bat eta telefono bat erabilgarriak egingo zaizkigu. Honez gain txirriduak eta furgoneta daude. Txirrinduak Zatika Bike dendari erosiko dizkiogu, furgoneta aldiz, Mikelen aitarena hartuko dugu, tarteka erabilgarria izan daitekelako. Txirrinduen mantenua dela eta, erruedak puzteko erabiltzen den gailuaz ere baliatuko gara.

Baliabide ez fisikoak direla eta, webgune bat ere eskuratzeaz arduratuko gara. Honako hau, nahi eta nahi ez ulertteraza izan beharko litzateke. Honen sorketari dagokionez aditu baten bidez eskuratuko genuke.

